

EUSKOTRENEK AUTOBUSEN ZERBITZUA ALDATUKO DU DATORREN OSTIRALEAN ITZIARREN

Itziarko Nekazaritza Azoka dela-eta, datorren ostiralean (azaroak 1), Euskotrenek DB05 Ondarroa/Mutriku-Deba-Zumaia lineako Lurraldebus autobus-zerbitzua aldatuko du.

Zehazki, Itziarko geldialdiak kenduko dira eta, beraz, N-634koak egingo dira bakarrik, bi noranzkoetan.

Kasu honetan, ez da geldialdirik egingo leku hauetan: Itziarko Sarrera, Itziarko Industrialdea eta Itziarko Erdialde.

Informazio gehiago lortu nahi duten erabiltzaileek eskura dute Euskotrenen telefonoa: 944 333 333. Webgunean ere informazioa lor dezakete (www.euskotren.eus), baita Twitterren ere (@euskotrenEJGV).

Igorpen-data: 2019ko urriaren 29a, asteartea